

¿QUÉ MODELO DE SOCIEDAD QUIERES?

El informe FOESSA sobre exclusión social en Euskadi nos muestra una sociedad que parece estable por fuera, pero que por dentro está llena de grietas. Ha bajado la exclusión más grave tras la crisis, sí, pero **cada vez hay más gente viviendo "al límite"**, con el miedo constante de no llegar a fin de mes o de que un imprevisto lo cambie todo. Es esa foto bonita de nuestras calles que, si miras con atención, deja ver que algo no encaja.

La exclusión social alcanza al 11,8% de la población vasca, y dentro de ella, un 3,8% vive en situación de exclusión severa (unas 84.000 personas, más del censo de Errenteria). Comparado con 2018, hay mejoras: baja la exclusión más dura y la tasa global también. Pero ojo: sube la **integración precaria** hasta el 34,7% (unas 766.000 personas, más que toda Gipuzkoa). El informe lo denomina "ensanchamiento del espacio de la precariedad".

Más de la mitad de la población (53,5%) está bien integrada, pero un 34,7% vive en una posición frágil: dentro de la sociedad, pero con problemas de inestabilidad en el empleo (precariedad, temporalidad...), rasgos de exclusión en la vivienda (familias que viven en habitaciones compartidas, imposibilidad de mantener una temperatura adecuada, falta de contrato), o, entre otras cuestiones, no pueden asumir los gastos de la medicación que necesitan... Son familias que están por encima del umbral de pobreza económica, pero cuyas dificultades les sitúan en la cuerda floja hacia la exclusión social.

"La verdadera comunidad se construye cuando nadie queda excluido de la mesa común. La caridad no es limosna, es justicia que restaura la dignidad."

Papa León XIV

¿Quiénes lo sufren más?

Hogares en pobreza severa (prácticamente todos excluidos), sin ingresos (92%), que buscan empleo (78%) y hogares con persona extranjera al frente (43%). Preocupante: el 65% de la exclusión está en hogares con niños, y 4 de cada 10 personas extranjeras está en exclusión.

FOESSA también llama la atención sobre el eje de exclusión que más crece: el de la **político-ciudadanía** (38,5% de la población): sobre todo, no poder participar políticamente (23%), lo que deja a muchas personas sin posibilidad de influir en las decisiones que afectan a su día a día. Evidentemente, esta realidad afecta especialmente a quienes tienen origen migrante.

Y no solo falta participación: hay fractura social profunda. El 15% de los hogares en exclusión sufre **aislamiento social**: viven solos, sin apoyo ante la enfermedad o las

dificultades. La ayuda mutua entre hogares vascos se desploma del 76% (2018) al 44% (2021), mostrando la soledad estructural de quienes más la necesitan.

No obstante, hay avances: el Ingreso Mínimo Vital + Renta de Garantía de Ingresos cubren al 97,8% de quienes están en pobreza real. Pero aun así, en 2024, uno de cada 5 hogares no podía afrontar gastos imprevistos, un 18% no podía ir de vacaciones una semana o un 16% no podía sustituir muebles viejos.

¿Y ahora qué?

No es alarmismo, es un toque de atención. Del informe FOESSA sobre Exclusión y Desarrollo Social en Euskadi se desprende que en la Comunidad Autónoma Vasca contamos con un buen sistema social y mejores números que en el conjunto de España. Sin embargo, hay **signos de precariedad que hacen sombras a los logros**.

Por ello, el informe apuesta por la necesidad de un **nuevo pacto social** que mire a los márgenes: vivienda digna para todas las personas, derechos plenos para migrantes, protección extra a la infancia, y participación real para que ninguna persona se quede fuera.

"Hoy tenemos que decir 'no a una economía de la exclusión y la desigualdad'. Esa economía mata. [...] Así como el mando del piloto enciende las turbinas y da vida al avión, la caridad mueve todo"

Papa Francisco

Desde nuestra identidad cristiana, que tiene el amor fraterno como base, esta realidad nos conmueve profundamente. En Caritas Gipuzkoa, la Pastoral de la Salud, la Pastoral Penitenciaria, la Pastoral de Personas Migrantes y la Diócesis de San Sebastián, cientos de personas —profesionales y voluntarias— trabajamos cada día desde la escucha y el acompañamiento. Promovemos el voluntariado y el compromiso social con fe y esperanza, convencidas de que, si caminamos en la misma dirección, podemos **seguir avanzando hacia una mayor justicia social y creando oportunidades para todas las personas**.

ZER GIZARTE EREDU NAHI DUZU?

Euskadiko gizarte-bazterketari buruzko FOESSA txostenak kanpotik egonkorra dirudien, baina barrutik arrakalaz beteta dagoen gizartea erakusten digu. Krisiaren ondoren bazterketarik larriena jaitsi da, bai; baina **gero eta jende gehiago bizi da "mugan"**, hilaren amaierara ez iristeko beldur etengabearekin edo ustekabeko zerbaitek dena hankaz gora jarriko duen beldurrez. Gure kaleen argazkia polita izan daiteke, baina arreta jarritz gero, zerbaite erabat ondo ez dagoela ikusten da.

Gizarte-bazterketak Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren %11,8ri eragiten dio, eta horren barruan, %3,8 bazterketa larrian bizi da (84.000 pertsona inguru, Errenteriako errolda osoa baino gehiago). 2018arekin alderatuta, hobekuntzak egon dira: bazterketarik gogorrena jaitsi da eta tasa orokorra ere bai. Baina adi: **integrazio prekariora** %34,7raino igo da (766.000 pertsona inguru, Gipuzkoa osoa baino gehiago). Txostenak "prekaritatearen espazioaren zabaltzea" deitzen dio horri.

Biztanleriaren erdia baino gehiago (%53,5) ondo integratuta dago, baina %34,7 egoera ahulean bizi da: gizartearen barruan, baina laneko ezegonkortasun arazoekin (prekariotasuna, behin-behinekotasuna...), etxebizitzan bazterketa-ezaugarriak dituztela (logela partekatuetan bizi diren familiak, etxea behar bezala berotu ezin dutenak, kontraturik ez dutenak), edo, besteak beste, behar duten botikaren gastuei aurre egin ezin dietenak... Pobrezia ekonomikoaren atalasearen gainetik dauden familiak dira, baina dituzten zailtasunek gizarte-bazterketarantz erortzeko arriskuan jartzen dituzte.

**"Benetako komunitatea mahaikide guztiek toki bera dutenean eraikitzen da.
Karitatea ez da limosna; duintasuna berrezartzen duen justizia da."**

Leon XIV. aita santua

Nork pairatzen du gehien?

Pobrezia larrian dauden etxeek (ia guztiak bazterketa egoeran), diru-sarrerarik gabekoek (%92), enplegua bilatzen ari direnek (%78) eta atzeritar jatorriko pertsona buru duten etxeek (%43). Kezkagarria da: bazterketaren %65 haurrak dituzten etxeetan gertatzen da, eta atzeritar jatorriko 10 pertsonatik 4 bazterketa-egoeran daude.

FOESSAk gehien hazten ari den bazterketa-ardatzari ere arreta jartzen dio: **politika-herritartasunarena** (%38,5). Batez ere, parte-hartze politikorik ez izatea (%23) da arazoa, eta horrek pertsona askori eguneroko bizitzan eragiten dieten erabakietan eragiteko aukerarik gabe uzten ditu. Jakina, errealitate horrek migratzaile jatorria dutenei eragiten die bereziki.

Eta ez da parte-hartzerik eza bakarrik: gizarte-arrakala sakona dago. Bazterketa-egoeran dauden etxeen %15ek **gizarte-isolamendua** pairatzen du: bakarrik bizi dira, gaixotasunaren edo zailtasunen aurrean laguntzarik gabe. Euskal etxeen arteko elkar-laguntza %76tik (2018) %44ra (2021) jaitsi da, eta horrek gehien behar dutenen bakardade estrukturala agerian uzten du.

Hala ere, aurrerapenak ere badaude: Gutxieneko Diru Sarrera + Diru-sarrerak Bermatzeko Errentak benetako pobrezian daudenen %97,8 estaltzen dute. Baina, hala eta guztiz ere, 2024an, 5 etxetik batek ezin izan zien aurre egin ustekabeko gastuei; %18k ezin izan zuen astebeteko oporrik hartu, eta %16k ezin izan zituen altzari zaharrak ordezkatu.

Eta orain zer?

Ez da alarmismoa; arreta-deia baizik. Euskadiko Bazterketa eta Garapen Sozialari buruzko FOESSA txostenetik ondorioztatzen da Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte-sistema ona dugula eta Espainiako Estatuko batez bestekoak baino datu hobekak ditugula. Hala ere, **lortutako aurrerapenei itzala egiten dieten prekaritate-zantzuak badaude.**

Horregatik, txostenak **gizarte-itun berri** baten beharra azpimarratzen du, ertzetara begiratuko duena: pertsona guztientzako etxebizitza duina, migratzaileentzako eskubide osoak, haurren babes handiagoa, eta benetako parte-hartzea, inor kanpoan gera ez dadin.

"Gaur 'bazterketaren eta desberdintasunaren ekonomiari ez' esan behar diogu. Ekonomia horrek hil egiten du. [...] Hegazkinaren aginteak turbinak pizten dituen bezala hegazkina mugiarazteko, karitateak dena mugitzen du."

Francisco aita santua

Gure kristau nortasunetik, oinarrian senidetasun-maitasuna duena, errealitate honek sakonki hunkitzen gaitu. Caritas Gipuzkoan, Osasun Pastoraltzan, Espetxe Pastoraltzan, Pertsona Migratzaileen Pastoraltzan eta Donostiako Elizbarrutian batera, ehunka lagunek —profesionalek eta boluntarioek— egunero egiten dugu lan entzutea eta bidelaguntza oinarri hartuta. Boluntariotza eta konpromisoa sustatzen ditugu fedez eta itzaropenez, norabide berean elkarrekin ibiltzen bagara **justizia sozialean aurrera egiten jarrai dezakegula eta pertsona guztientzat aukerak sortzen jarrai dezakegula sinetsita.**